

Zertan den Euskadi – Situación País Vasco

2020



Euskadiko ekonomiaren aurrikusitako bilakaera COVID19aren krisia dela eta

2020ko Urria

EAEko BPGa % 10,5 murriztu daiteke 2020an, eta % 5,8 igo 2021ean. Horren ondorioz, 22.000 lanpostu inguru suntsituko lirateke biurtekoan eta, langabezia-tasa ehuneko 1,5 puntu igoko litzateke, 2021ean % 10,8ra iritsiz. Krisiaren eragina, beraz, Espainiako ekonomia osoak izan dezakeena baino zertxobait txikiagoa izango dela espero da; izan ere, aurtan beherakada txikiagoa izango da, eta hurrengo urtean errebotea ere txikiagoa. Konfinamendu eta urruntze sozialerako neurriei esker, COVID-19aren hedapena geldiarazi ahal izan zen neurriok indarrean iraun zuten bitartean, baina eragina handia izan zuen jarduera ekonomikoan. Hala, urteko lehen seihilekoan jardueraren murrizketa % 20 ingurukoa izan zela kalkula liteke, 2019ko bigarren erdiarekin alderatuta.

Osasun eta ekonomia arloko ziurgabetasuna, eta eskaintzaren murrizketak dira urteko lehen seihilekoan izandako kontsumoaren uzkuertzearen arrazoi nagusiak. Familien gastuaren doikuntza, osasunari eta lan-egoerari buruzko zalantzek, konfinamendu-neurrien iraupen handiagoak eta urruntze sozialak eragin zuten. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoan, bai TPV operatiboak, bai erkidegoan kreditu- edo zordunketa-txarteekin egindako gastua, Espainian baino gutxiago murriztu ziren: % 64 eta % 49 pandemiaren unerik gogorrenetan; Espainian, berriz, % 67 eta % 55. Beherakada nabarmenagoa izan zen bidaien, ostalaritzaren, jatetxeen eta aisialdiaren sektoreetan, % 70 eta % 90 artean. Aitzitik, konfinamendu-testuinguruak eta epidemiaren aurkako borroka kontsumoa berbideratu egin zuten, merkataritza elektronikoa, elikadura-produktuak eta osasun-zerbitzu eta -produktuak bultzatuz. EAEko ekonomian pisu txikiagoa duten sektoreok negatiboki kaltetuak izan direnez, 2020ko bigarren hiruhilekoan estatuko BPGan baino zertxobait txikiagoa izango litzateke eragina, baina historikoa nolanahi ere: -% 16,8 h/h, Espainiako % 18,5koaren aldean.

Kutsatzeak murriztearen eta murrizketak malgutzearen ondorioz, susperraldi handia gertatu zen deseskalatze-aldian, eta bultzada fiskal eta kredituaren bultzada esanguratsu batek lagundu zuen, bai estatuaren, bai Eusko Jaurlaritzaren eskutik, martxoan abian jarri baitzuen 841 milioi euroren plan bat (BPGaren % 1,1), abalak, likidezia eta telelanari laguntza emateko. Murrizketek ez zuten eragin berdina izan sektore edo eskualde guztietan: erlaxazio goiztiarragoa izan zutenek gora egin zuten lehenik. Merkataritzaren susperraldia handiagoa izan zen, eta motelagoa industria edo turismoaren kasuan: aisialdiari eta gizarte-kontsumoari lotutako sektoreen hobekuntzak pauso bat atzetik jarraitzen du. Hala, Barne Produktu Gordinaren igoera % 11,5ekoa izango litzateke hirugarren hiruhilekoan, Espainiako % 14 baino txikiagoa.

Hala ere, krisiaren eragina, esanguratsua izateaz gain, desberdina izan da sektoreen edo kolektiboen artean, 2008an ikusitakoaren aldean. Gazteen artean enpleguaren beherakada handiagoa bada ere, aldaketa demografikoaren ondorioz, Espainian **35 urtetik gorakoak dira orain lana galdu duten pertsonen erdiak baino gehiago** (2008-2009an bosten bat ziren). Sektoreen ikuspuntutik, eraikuntza ez da, lehen aldiz denbora luzean, krisiaren eragileetako bat. Aitzitik, **ostalaritzak jasaten ditu gehien epidemiaren ondorioak**, beste ziurgabetasun-kasu batzuetan babes-sektore izan denak, bai eta langilearen, enplegatzailearen edo kontsumitzailearen presentzia fisikoa ezinbestekoa den jarduerak ere. EAEn ostalaritzak pisu erlatibo txikiagoa duenez, enplegua gutxiago murriztu da Espainian baino, baina bestalde, telelanaren erabilera txikiagoa ahalbidetzen duten zenbait sektoretan espezializatua izateak, industrian kasu, eragin negatiboa izan du. Genero-ikuspegitik, krisi hau berdintasunezkoagoa izan da, emakumei eta gizonei antzera eragin baitie, 2008an ez bezala. Azkenik, lurralde ikuspegitik, nabari da hiriburu-eremuetako udalerriek eta hiri-eremuetan daudenek, bereziki Bilbo Handiak, gainerakoek baino eragin txikiagoa pairatu zutela, hirugarren hiruhilekoaren amaierarako. Aldiz, enpleguaren beherakada handiagoa izan zen eskualde industrialagoetan, hala nola Debagoienan, Debabarrenean edo Durangaldean.

Berragertzeek eta urrian hartutako neurri murriztaile berriek ziurgabetasuna mantentzen dute. Harrigarriki, oraingoz familiek ez dute euren jokamoldea gehigi aldatu: uztaila eta abuztuan EAEn txartelekin egindako gastu presentziala %10 hazi bazen urte-arteko tasan, urriko lehen 18 egunetan, neurri murriztaileak indarrean sartu aurretik, %8ra murriztu zen kopuru hori. Hala, ezarritako eskari-politiken ondorioz, susperraldia luzatzeko itxaropenari eusten zaio. Hala ere, hazkunde-aurreikuspena moteldu egin da urteko azken hiruhilekorako eta hurrengoetarako, Euskadin, Espainian eta EBn osasun-egoerak okerrera egin ostean. Txerto baten garapenean edo jarduera ekonomikoan hain eragin handia izan gabe kutsatzea mugatzen duten prozeduren garapenean aurrera egiteko aukerak aurreranzko agertoki positiboagoak ahalbidetzen ditu, baina arrisku gehienek aurreikuspenetan beheranzko joera jartzen jarraitzen dute.

2021eko hazkunde-aurreikuspena bigarren kutsatze-boladak eta hainbat lekutan hartzen ari diren neurri murriztaileen eraginak baldintzatzen dute; horrek moteldu egingo du EAEko eskariaren eta ekonomiaren susperraldia, datorren urtean Espainiakoa baino gutxiago haz baitaiteke. Hainbat faktorek eragiten dute aurreikuspen horretan. Alde batetik, **Espainia eta Europako ekonomietan espero den desazelerazioak** murriztu egiten du Euskadin ekoiztako zerbitzuen eta, batez ere, ondasunen eskaria, BPGren proportzio handia baitira. Ildo horretan, esportazioek azken hilabeteetan izandako hazkundeak erakusten du esportazioen bilakaera negatiboagoa izan dela, bai bitarteko ondasunena, bai produktu energetikoena, nahiz ekipamendu-ondasunetan zertxobait hobeia izan. Hala ere, euskal automobilgintza sektorea ez da Espainian bezain azkar suspertu. Hori bat dator industria-ekoizpena Euskadin motelago berrindartzearekin, bai ekipamendu-ondasunetan, bai kontsumo-ondasun iraunkorretan. Hori guztia, EDBz kanpoko merkatuekiko esposizio handiagoarekin, eta esportazioen BPGren gainera pisu handiagoarekin.

Bestalde, kontsumo-gastuari eragiten dion ziurgabetasun bera dago inbertsioaren susperraldi txikiagoaren atzean. Ildo horretan, kapital-ondasunen inportazioen bilakaera negatiboagoa izango litzateke EAEn, inbertsio pribatuaren bilakaera zertxobait ahulagoa adieraziz. Etxebizitzan egindako inbertsioa ere Espainiako %19,7 baino gehiago murriztu zen EAEn urteko lehen erdian, batezbeste hiruhileko %27,2 gutxituta, prezio egonkorrekin. Horrela, administrazio publikoen kontsumoak eta inbertsioak egonkortzaile ekonomiko gisa jardun lezakete, pandemiari behar bezala erantzuteko, zerga-arauak malgutu diren honetan, defizit handiagoa ahalbidetuz, zerga-bilketaren beherakada % 13tik gorakoa den testuinguru batean. Gastu publikoaren joera hedakorrenekin batera, kontu publikoen txartze bat eragingo du horrek, defizita %2tik gora kokatzeraino.

Funtsezkoak izango dira datozen hiruhilekoetan hartuko diren neurri publikoak eta horien ezarpena, bai Europako funtsei dagokienez, bai horiekin batera egingo diren erreformei dagokienez. Alde batetik, barne-eskariari emandako funtsezko bultzada indarra galtzen ari da, ezarri eta sei hilabetera. EBZren politikaren, ICOren edo ALEEn inguruko egungo erregulazioa berrikusi beharko lirateke. Bestela, enpresa-ehunari kalte egin diezaioke eta etorkizunean enplegu-galera areagotu, baldin eta espediente bat aurkeztu duten enpresek euren lan-taldeak berregituratu behar badituzte. Bestetik, Next Generation EU (NGEU) funtsaren bidez iragarritako baliabideak hurrengo urteetarako pizgarri fiskal nahikoa badira ere, Espainiako Gobernuaren Berreskuratze Planaren eta Euskadiko Berreraikuntza Ekonomiko eta Sozialerako Planaren bidez iritsi beharko dute.

Agertoki ekonomiko honen gainera arriskuak ziurgabetasun handiko bi eremutan oinarritzen dira. Alde batetik, pandemiaren bilakaera, susperraldirako oztopo nagusi gisa. Horrek are garrantzi handiagoa hartzen du Gipuzkoakoak bezalako berragerpenekin, mugikortasuna eta jarduera murrizteko eskaerak egitera behartu dezaketen heinean. Beraz, funtsezkoa da osasun-sistemak tentsio handiagoko egoerei aurre egiteko duen gaitasuna hobetzea, eta tratamendurako nahiz txerto gisa sendagai eraginkorrak garatzea. Kontsumoa berriz aktibatu bada ere, oro har, duela urtebeteko mailaren azpitik jarraitzen du. Eta hori ez da soilik kutsatzeko beldurragatik eta eskaintzan oraindik mantentzen diren murrizketengatik, baita lan-merkatuaren egoeragatik eta enpresa-kaudimenaren gainera arriskuengatik ere.

Bestalde, NGEUren eragina eta ekonomiaren egiturazko ahuleziei aurre egiteko egin daitezkeen erreformak daude. Hemen aurkezten diren aurreikuspenen arabera, inbertsio handiagoaren ondorio esanguratsuak 2021eko hirugarren hiruhilekotik aurrera baino ez dira hautemango, eta ondorio garrantzitsuenak hurrengo urteetan. Gobernantza- eta egikaritze-sistema egokiek bultzada fiskal baten eta hurrengoaren arteko balizko arrakala ixten lagun lezakete, eskura dauden Europako funtsei proiektu onak aurkeztuz eta, horiekin batera, asmo handiko egitura-erreformak eginez, lan-merkatuaren, ondasun eta zerbitzuen merkatuaren, produktibitatearen edota finantza publikoen eramangarritasuna hobetzeari dagokionez. Tokiko eta eskualdeko gobernuekiko hurbiltasuna eta lankidetzaren funtsezkoak izango dira proiekturik eraginkorrenak eta haien exekuzio onena identifikatzeko, lankidetzaren publiko-pribatuaz gain.

Nolanahi ere, agertoki positiboagoak gertatzeko aukera ere badago. Proba fase aurreratu batean dauden txertoen kopuruak datorren urte eta erdian erremedio eraginkorra izateko probabilitatea handitu du. Gainera, aurreikuspenen arabera, datorren urteko bigarren erdian hazkunde bizkortu daiteke, batez ere inbertsioarena, eta hori atzeraelikatu egin daiteke Europar Batasun osoan bultzada aldi berean emanen delako. Estatuko Aurrekontu Orokorrak laster onartzeak, edo Espainiako eta Euskadiko ekonomien hazkunde-gaitasuna hobetzeko neurrietan aurreratzeak argitalpen honetan aurreikusitakoak baino hazkunde tasa handiagoak ekar litzake.

LEGE OHARRA

BBVA Research-eko sailak egindako dokumentu honek dibulgazio-izaera du, eta egindako datari dagozkion datuak, iritziak eta estimazioak ditu, bertan landutakoak edo fidagarri irizten diegun iturrietatik datozenak edota berorietan oinarrituta egin direnak; hala ere, BBVAk ez ditu bere kabuz egiaztatu beroriek. Hortaz, berorien zehaztasunari, osotasunari edo zuzentasunari buruzko bermerik ez du ematen BBVAk, ez berariaz eta ez modu inplizituan.

Dokumentu honetan izan daitezkeen estimazioak oro har onartuta dauden metodologiak erabiliz landu dira, eta halakotzat hartu behar dira, hau da, aurreikuspen edo proiektiotzat. Aldagai ekonomikoen bilakaera historikoak (positiboa edo negatiboa) ez du bermatzen etorkizunean bilakaera baliokidea izango dutenik.

Dokumentu honen edukia aldagetak izan ditzake, aurretiazko abisurik gabe, adibidez, testuinguru ekonomikoaren arabera edota merkatuaren gorabeheren arabera. BBVAk ez du inolako konpromisorik hartzen ez dokumentua eguneratzeko eta ez aldageta horien berri emateko ere.

BBVAk ez du beregain inolako erantzukizunik dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzearen ondorioz zuzenean edo zeharka gerta daitezkeen inolako galeraren aurrean.

Ez dokumentu hau eta ez jasotzen duen edukia ere ez dira inolaz ere eskaintza, gomendio edo erosketa-eskaera, aktibo edo tresna finantzarioak erosteko, inbertsioak desegiteko edo interesak lortzeko, eta ezin dute izan inolako kontratu, konpromiso edo erabakiren oinarri.

Dokumentu honek gara ditzakeen aldagai ekonomikoekin lotuta egon daitezkeen aktibo finantzarioetan egin daitezkeen inbertsioei dagokienez, irakurleek argi eta garbi izan behar dute ezin dutela dokumentu hau beren inbertsioei buruzko erabakiak hartzeko oinarritzat hartu, eta inbertsio-produktuen eskaintzak egin diezazkieketen pertsonak edo erakundeak lege behartuta daude horrelako erabaki bat hartzeko beharrezkoa duten informazio guztia ematera.

Honako dokumentu honen edukia jabetza intelektualari buruzko legediak babesten du. Berariaz debekatuta dago berau erreproduzitzea, aldatzea, banatzea, publikoki zabaltzea, eskuragarri jartzea, zatiak ateratzea, berrir erabiltzea edo bidaltzea edo beste edozein helburutarako erabiltzea, edozein bitarteko edo prozedura medio, lege baimendutako kasuetan salbu eta BBVAk berariaz emandako baimena dutenean salbu.

Txosten hau prestatu du:

Ekonomista Burua

Miguel Cardoso

miguel.cardoso@bbva.com

Joseba Barandiaran
joseba.barandia@bbva.com
+34 94 487 67 39

Giancarlo Carta
giancarlo.carta@bbva.com
+34 673 69 41 73

Juan Ramón García
juanramon.gl@bbva.com
+34 91 374 33 39

Félix Lores
felix.lores@bbva.com
+34 91 374 01 82

Pilar Mas
mariapilar.mas@bbva.com
+34 91 374 83 94

Virginia Pou
virginia.pou@bbva.com
+34 91 537 77 23

Pep Ruiz
ruiz.aguirre@bbva.com
+34 91 537 55 67

Angie Suárez
angie.suarez@bbva.com
+34 91 374 86 03

Camilo Andrés Ulloa
camiloandres.ulloa@bbva.com
+34 91 537 84 73

Rubén Veiga
ruben.veiga@bbva.com
+34 638 59 35 17

INTERESDUNAK ZUZENDU HONA:

BBVA Research: Calle Azul kalea, 4. Edificio La Vela eraikina – 4 eta 5. solairuak. 28050 Madril (Espainia).
Tel.: +34 91 374 60 00 eta +34 91 537 70 00 / Fax: +34 91 374 30 25
bbvaresearch@bbva.com www.bbvaresearch.com